



Txinatar delegazioa herrian

Elkarrizketa: Joxe Mari Mendizabal
Herriko jaietako kronika
Itsasondoko lumadunak eta basoa

Uda pasa ostean hemen gara berriz ere, ikasturte berriari indartsu ekiteko asmoz. Oporrak izan dituzuenok horiek atsedenerako baliatu izana espero dugu, nahiz eta zalantza dugun sarri oporetan, horrenbeste gauza egin nahiarekin, egunerokoan baina estresatuago ez ote garen ibiltzen.

Herriko jaiak ere gainean ditugu, lagunekin berriz elkartu eta partaidetzan eta auzolanean une atseginak pasatzeko parada bikaina izaten da; lanera eta eskolara itzulera samurtzen duen etena, duarik gabe.

Baina egiteko eta ekiteko parada ere bada, agerikoa baita zereginik ez dela faltako. Udal berria uda aurretik osatu bazen ere, antolatze lanak eta oporrak medio, ikasturtearekin batera ekingo dio buru-belarri lanari. Agintaldi hasiera ere badenez, zortetik onena eta bidean asma dezaten opa diegu, ez da zalantzarik herritarrek ere bide horretan zeresana eta zeregina izango dugula.

Agintaldiaren nondik norako nagusiak zeintzuk izango diren finkatzen joan beharko bada ere, ziur herri bizitzak, gizarte gaiek, hirigintza proiektuek eta ingurumenak markatuko dutela hasierako agenda.

Batetik, badakigu aurreikusitako asmo eta proiektuak daudela, baina sarri, bat-batean eta egunerokoan sortzen diren ezustekoek eta egitekoek markatzen dutela agenda. Hemeroteka izango da nondik norako hauen lekuko.

Aldizkariaren edukiarri dagokionez, hemerotekak izango du pisu nagusia, herriko jaiak urteko ekitaldi garrantzitsuenetakoa izanik, beraien kronika ezin zen falta gure aldizkarian. Hala ere, gainerako ohiko atal guztiak osatzen saiatu gara. Ez dugu ukatuko, udako oporrak tartean izanik, pixka bat gehiago kostatu zaigunik, baina hemen duzue emaitza. Beti bezala denetik pixka bat topatuko duzue gure aldizkarian.

Hurrengo atalean gehiago, eta posible bada, hobeto. ■



Agurra



Aurkibidea

- 03-04. **Udaleko berriak**
- 05. **Haurreskola**
- 06. **Eskola**
- 07. **Jubilatuak**
- 08-11. **Elkarrizketa:** Joxe Mari Mendizabal
- 12. **Informatika**
- 13. **Elkarrizketa:** Iban Serrano Rubio
- 14-15. **Natura**
- 16. **Laburrak**
- 17-18. **Hemeroteka**
- 19. **Errezeta / Euskararen atala**
- 20. **Oharrak / Kultur agenda**

Sarrerako bertsoak

Doinua: *Iparragirre abila dela*

Uda joan da bere garaian,
festa gehienak adio
eta udazkenak eskaini digu
bere berea serio
bero eta hezekor
baina fruitu emankor
eta ez du gutxi balio
ikasturteak txirriña jo du
eta ez da libratzen inor.

Udaletxeko azken berriaz
eskaini zaigu zerrenda:
haurreskolako ongi etorria
urterokoa izaten da,
egokitzapen lanak
noizko bukatu danak
zai-zai jarririk geunden da...
eta umeei ezin diegu
pazientzia gomenda.

Elkarrizketa luze zabala
Jesus Mari maixuari
eman dizkigu bizipen frango
eta ikuspegi ugari,
Iban Serrano, berriz
aldatu zaigu herriz
ez da soilik bisitari
itsas ertzetik Itsasondora
boga, boga bizitzari.

Jubilatuak maite dutenez
patxada eta aisia
txandala jantzi eta landuaz
adineko gimnasia,
baso autoktonoa
Itsasondokoa
lumadunen gutizia...
legatz bete prestatu eta
bukaera berezia.

Udaleko berriak

Uztaila urria bitartean udalean jorratu diren gaien inguruko informazioa doa hurrengo artikuluan:



UDAL BATZARRAK

Maiatzak 26ko udal hauteskundeen emaitzen arabera, ekainak 15ean, udal berria osatzeko bilkura egin zen. Udala EH Bilduko 5 zinegotzik eta EAJko 2 zinegotzik osatzen dute. Bilera normaltasun osoz gauzatu zen, eta udala osatzen duten zinegotzi guztiek, herriaren alde lan egiteko asmoa azaldu zuten.

Hauek dira kide berriak:

Alkatea: Iñaki Aizpuru Oiarbide
 Alkate ordekoa: Nagore Etxeberria Pikabea
 Zinegotziak: Gorka Martinez Urdangarin
 Aiora Zurutuza Rodriguez
 Maddi Alberdi Salegi
 Judith Otegi Lopez de Murillas
 Imanol Lasa Ceberio

Uztailak 1ean egindako udal bilkuran, plenoak egiteko maiztasuna eta batzordeen antolaketa ere erabaki zen.

Lau batzorde izango dira, eta jarraian zehazten diren zinegotzien ardurapean egongo dira:

- Herri bizitza: Nagore Etxeberria Pikabea
- Gizartea: Aiora Zurutuza Rodriguez
- Lurralde Antolaketa: Iñaki Aizpuru Oiarbide
- Diru kontuak: Gorka Martinez Urdangarin

Batzordeak irekiak izango dira, eta nahi duten herritar guztiak parte hartu ahal izango dute bileretan. Bilera horien egutegia eskuragarri izango da udaletxean, pantaietan eta web guneko agendan.

Bilera berean, udalaren eskuduntzako organoek antolatzen dituzten bileretarako, udal ordezkarien izendapena egin zen.

DIRULAGUNTZAK:

Azken hiruhilabetean honako dirulaguntzak eskatu eta lortu dira:

Eskatutakoak

Jarduera fisikoa sustatzeko programak burutzeko 2019-2020 ikasurteko Eskola Agenda finantziatzeko Etxeko hondakinen prebentzioa, berrerabilpena eta birziklapenari zuzendutako proiekturako

Lortutakoak

Euskera sustatzeko proiektuak gauzatzeko 2.000 €. Haur, gazte eta nerabeei zuzendutako ekintzak gauzatzeko. Landa bideetan akondizionamendu eta konponketa obrak egiteko 35.000 €. Lanbideak, obra eta zerbitzuetan 5 hilabetez lan egingo duen langile baten kontratazioa finantziatzeko laguntza eman du.

LANGILEEN KONTRATAZIORAKO DEIALDIAK

Behin behineko izaeran gazteria eta kulturako dinamizatzailerik bat kontratatuzko egindako prozesua amaitu da. Nerea Manzidor Mendizabal da kontratatutako dinamizatzailerik berria.

Herrian ezarririk dauden zortzi auzokonposta gailuen kudeaketa, jarraipena eta mantenu lanak egiteko zerbitzua eman zaio uztaila eta abuzturako Luar enpresari.

Lan desberdinetako aguazil laguntzaile lanpostuaren deialdia.

Uztailan argitaratu zen Lan desberdinetako aguazil laguntzaile lanpostuaren deialdia. Irailak 4eko aldizkarian, akats zuzenketa iragarkia argitaratu denez, eskariak aurkezteko epea luzatu da irailak 5etik 16ra, biak barne. Zenbait eskari aurkeztu dira dagoeneko, eta hurrengo hilabetetan egingo dira deialdi honetako azterketak lanpostu hori lortuko duen hautagaia erabakitzeko. ■

BESTE ERABAKI BATZUK

Mozioak

EH BILDUK aurkeztutako mozioa onartu da. Mozio horrek Foru Aldundiari eskatzen dio pinuen gaitzaren aurkako oxido kuprosoa lurretik aplikatzeko onartutako araudian, tratamendua emateko onartu diren lursailen zerrendatik, Itsasondoko sailak kentzea. Alegia, eskatzen da Itsasondoko Hiri Antolaketako Plan orokorrean Ingurumenaren hobekuntzarako edo Basoa artatzeko eremu bezala izendatuta dauden esparruan kokatzen diren sailak tratamendua eman ahal izango diren zerrendatik kentzea, tratamendu hori herriko arauen aurka eta interes orokorraren kalte larria sortzeko arriskua duela kontsideratzen delako.



Alkate dekretuak

Apiriletik abuztua bitarteko fakturen zerrendaren zenbatekoa guztira: 178.596,15 € onartu da.

Udaletxeko kulturgunea eta lokalak erabiltzeko herriko elkarte, partikular eta eragileen partetik 10 eskari izan dira:

- 2019ko 1 eta 2 hiru hilabeteko ur erroldak onartu dira 28.859,48 €ko zenbatekoarekin.
- 2019ko 2. lauhilabeteko zabor bilketako errolda onartu da 15852,52 €ko zenbatekoarekin.
- Azken hiru hilabetean larrialdi laguntzak onartu dira 5.254,40 €ko zenbatekoarekin.
- Kreditu aldaketa espedienteak onartu dira, 99.000 €ko zenbatekoarekin.
- Obra txikien sei lizentzia eman dira.
- Herri baratzetako sail bat kudeatzeko baimen bat eman da.
- Euskara ikasteko ikastaroak finantziazteko dirulaguntzak eman zaizkie bi bizilagunei, guztira 579,25 €.
- Euskal Aldizkari eta jaialdiarako 2.900 €-tako laguntzak ematea erabaki da.
- Hiru baserritan bigarren etxebizitza ezartzeko obrak amaitu direla egiaztatu ondoren, lehen erabilera baimenak eman dira.
- Ekainak 15ean Herri Eguna ospatzeko baimena eman zitzaion Gazte Asanbladari.
- Ekainaren 21ean, 22an eta 23an Garagardo azoka ospatzeko baimena eman zitzaion Arbel-aitz elkarteari.
- Hilerrian kontzesioak emateko 4 espediente onartu dira.
- Herri bideetatik zehar egurrak garraiatzeko 4 baimen eman dira.
- Irailak 20tik 22ra izan ziren Itsasondoko jai nagusietan herriko plazan postuak (barraka, tiro jaurtiketa, ohe elastikoak, salmenta postua) jarri ahal izateko baimenak eman dira.
- Arreta zerbitzuak enpresari esleitu zaio Itsasondon, Etxez etxeko zerbitzua emateko kontratua hurrengo 4 urtetarako. ■

Agur eta ongietorri



Udako oporrak iritsi dira eta honekin batera haurreskolako ibilbidea bukatu duen taldeari agurra eman nahi diogu. Aurten talde handia izan da, hala ere familia bat izatea lortu dugu, bakoitza bere izaera propioarekin. Haur bakoitzak aportatu dio taldeari eta guk hezitzaileok ere askot ikasi dugu haur bakoitzaren berezitasunetatik. Momentu honetan beste ibilbide berri bati ekingo diote esperientzi berriak bizituaz eta beraien nortasuna, erlazio berriak... osatuaz. Gure partetik esperientzi berri guzti hauek bizi eta disfrutatu ditzauela opa dizuegu.

Bestalde, aurten beste kurtso berri bat hasi da. Haur batzuek bertan jarraitu dute eta beste batzuk berriak etorri dira. Kurtso berriarekin batera egokitzapen garaia ere izaten da. Beraz, aldizkariak ematen digun aukera probestu nahi dugu gaiari buruz ideia orokor batzuk aipatzeko.

Egokitzapenak suposatzen duenez kontziente izan behar dugu:

- Haurarentzat egoera kritikoa da, atxikimendu irudien desagertzea ematen baita.
- Egoera ez naturala ematen da, heldu ezezagun batekin lotura afektiboa sortzearen beharra gertatzen delako.

Beraz, hezitzaile talde eta familiaren artean ezinbestekoa izago da: konfidantza, koordinazioa eta koherentzia. ■



Larraitz-ko abentura parkera irteera

Maiatzaren 19rako antolatatu genuen 5 eta 6. mailako ikasleen gurasoek aurtengo irteera, Larraitzko Txindokiko itzala abentura parkera. Ez zen erraza izan data bat aukeratzea, maiatza eta ekaina ekintzez gainezka dauzkagun hilabete hauetan... Eskola txikien festa, Euskal Eskola Publikoaren jai, Herri Urrats...

Aukeraketa egin zegoen, maiatzak 19, eta data gurturatu ahala eguraldiaren iragarpena kaxkarra zela ikusten genuen. Hala ere, planarekin aurrera egin genuen!

10:00etan, mendiko botak eta euritakoa jantzita, plazan elkartu eta Larraitzera abiatu ginen, haurrek ez zuten zalantzarik!

Larraitzera iristean, han genituen zain bi begirale. Lehenengo abentura parkean ibiltzeko arauak azaldu zizkiguten: gure ibilbidea ziurtasunez egiteko sokak, mosketoiak... nola erabili erakutsi ziguten.

Txikienek basajaun ibilbidea egin zuten:

Haundiek Mikelats – Atarrabi zirkuitua egin zuten:

Eta ausartenek Mari:

Goiz bikaina pasa genuen, eta zuhaitzek eguzkitatik babesteko ez ezik, euritatik babesteko ere balio dutela ikasi genuen! ■



Adinean aurrera egiteak ez du zertan oztopo izan behar gure gorputza zaintzerakoan. Ikusi besterik ez dago Itsasondoko jubilatuek zein ekintza ugari egiten dituzten.



Gure herriko jubilatuek martxan!

Abuztuaren 14an, Amabirjinaren egunean, garai batean herriko festa nagusiak orduan ospatzen zirela-eta, ohitura mantentzeko bazkaria egin zuten aurtengoan ere.

50 lagun inguru bildu ziren, 75-95 urte bitartekoak, eta mahai inguruan jaki goxoak dastatuz (zainzuriak, urdaiaz-pikoa, entsalada, bakailoa eta ijito-besoa), ederki pasatu zuten.

Ohiko sukaldariak prestatzen dute elkartean bazkaria, eta lana ematen duela aitortzen duten arren, gustura egiten dute, ohitura mantendu eta herriko jubilatuek elkarrekin gustura egoten direlako.

Herriko festetarako ezer berezirik ez dute antolatu beraiek, baina asko gustatu zaie guraso elkarteak prestatutako haur eta jubilatuen arteko jolas eta askaria. Polita da oso belaunaldi ezberdinak batu eta ekintza bidertigarriak elkarrekin egitea. Herriko festetan, bakoitzaren aukeren arabera, parte hartu dute hainbat ekintzatan.

Festan ondorena ere ospakizun giroan pasatu dute, irailaren 29an jubilatuz bazkaria izan dute-eta. Nautiko tabernan ospatu zuten, eta 40 bat lagun elkartu ziren. Urtero helduenei ematean zaizkien opariak ere gogotsu banatu zituzten autengoan, alkatearen laguntzaz. Gertrudis Arzak eta Antonio Monjek jaso zituzten bi ordulariak. Bestalde, giro pixka bat sortzearen ardo eta gazta zozketatu zituzten, eta Pili Otegiarentzat izan zen saria.

Oraintxe pintxo potean murgildurik gaude, eta lau astez, ostiraletan, 19:00etatik 20:00etara, Biz Nahi elkartean, tortilla eta txistorra izaten dute gerturatzen direntzat.

Urrian ere badute hitzordu bat, eta herrialde mailan egiten den jubilatuen martxan parte hartuko dute. Lehengo urtean Legorreta eta itsasondon egin zena aurtengo Oiarzunen izango da. Autobusetan egiten dute joan etorria, eta bertan bazkaria ematen diete. 4-8 pertsonako taldeak osatu behar dira guztienez, eta batera egin behar dute ibilbide osoa.

Gustura daude egiten duten lanarekin, aktibo egon nahi dute, eta badute zeregina! Hilean behin Beasaingo jubilatuetan elkartzen dira, inguruko herriko jubilatuekin; eta Itsasondon, berriz, hilean bitan, gutxienez, biltzen dira. Gabonetako loteria ere banatzen dute urtero.

Hauetz gain, urtean zehar burutzen dituzten ekintzak ere badituzte:

- **TIPI-TAPA: asteazkenean, 16:00etan**, ekimenean parte hartzen dute, eta ibilbidetxoa eginez, oinak mugimenduan jartzen dituzte.
- **MEMORIA TAILERRA: hileko azken asteazkenean, 18:00etan**, egiten dute. Hainbat ariketaren bidez, buru azkartasuna lantzen dute, memoria mantentzeko modurik eraginkorrena dela-eta.
- **BINGOA: hileko azken ostegunean, 17:00etan**. Hau ere, jokoan egitearen aitzakian, zenbakiak eta azkartasuna lantzeko beste modu bat dugu.

Horiez gain, urriaren 8an hasita, helduen gimnasia egiten dute. Idoia Jaka irakaslea gidari dutela, gorputza indartu eta kontzentrazioa lantzen dute. Irakasleak azaldu duenez, lehen mantenuko gimnasia eredu tradizionala egiten zen helduekin, zenbait aldagai kontuan izan gabe. Gaur egun, berak argi du helburua gorputzaren mugikortasuna mantentzea dela, gorputzaren kontzientzia hartuz.

Hiru ardatz dituzte bere saioek: postura, arnasa eta mugimendua. Ardatz horiek kontuan izanda egiten dituzte ariketa guztiak; eta etxean egiteko zenbait aholku ematen dizkie. Izan ere, astean behin egiten dute gimnasia saioa, eta ariketa horiek egunerokoan egitea komeni da. Aholku horiek, gainera, gimnasia saioaren ondoren egiten duten Tipi-tapa ekimenerako ere egokiak dira. Ibiltzeko zenbait aholku ematen dizkie, gorputzaren postura oso garrantzitsua delako tipi-tapa ibiltzeko.

Ekintza horiek guztiak ez dira gorputz fisikoa modu aktiboan izateko soilik, ekintza hauetan helduak elkarrekin harremantzen dira, bakarrik ez sentitzeko aukera dute, kontuak eta esperientziak partekatzen dituzte... horrela diraute hain gazte gure helduak! Bejondeiela! ■

Joxe Mari Mendizabal

Itsasondoko maisua

Lore-Txuriko Joxe Mari Mendizabalek 60 urteak bete berri ditu, eta orain gutxi hartu du erretiroa. Maisua izan da 39 urtean zehar Itsasondoko eskolan.

Eskola garaiak gogoratzen al dituzu?

Gu eskola txikian 4 urterekin-edo hasi ginen. Han bi edo hiru urte eman genituen, eta, ondoren, goiko eskolara joan ginen. Eskola txikia Iturri-txiki parean zegoen eraikin txiki bat zen, polita. Komuna berezia zuen eta azpialdean egurra jasotzeko lekua ere bazuen, han ibiltzen gintuan jolasean. Gero goiko eskolara joan ginen. Gogoan dut gora igo ginenean bagenekielako ordura arte maisu zorrotz bat zela han, eta gu beldurtuta geundela. Gogoan dut goiko pendizetik begira, Beiti aldetik etorri nintzela. Maisu berria etorri zen.

Gero Ordiziara joan nintzen, fraile-etara. Goiko eskolan hiru urte-edo egingo nituen, 9-10 urteak arte. Ume garaia festa bat zen. Ume asko ginela gogoratzen dut, eta goiko plazan asko ibiltzen ginela. Futboleak, pilotan, korrika... beti handiak tentatzen "hiri honek korrika irabazi egiten dik", eta, horrela, korrika-apustuak egiten.

Ordiziako fraileetan hiru urte egin nituen ikasten, eta, ondoren, Beasaingo institutuan bi urte. Gero Eibararrera joan nintzen. Han bazen "Universidad Laboral" deiturikoa, eta han hiru urte egin nituen. COU bukatu ondoren, unibertsitateko ikasketak egin nituen.

Afizioa beharko da irakasle izateko, ezta?

Bai, bai. Eibarren ibili ginenon artean askok ingeniari-tza aldetik jo zuten, han bertan ere bazeuden horrelako irakaskuntzak. Nik irakasle bidea aukeratu nuen, haurrak gus-tuko nituela-eta. 17 urterekin hasi nintzen magisteritza egiten, eta 20 urterekin bukatu.

Garai hartako egoera ez zen gaur egungoaren berdina. Euskara eskolatan sartzeko ari zen, eta, hortaz, irakasle euskaldunak behar ziren, baina ez zeuden. Itsasondoko maisu zen Don Luisek erretiroa hartu

Irakasle euskaldunak behar ziren, baina ez zeuden.

Goiko eskolan mutilak alde batetik eta neskek bestetik.

Egun edukiek garrantzia badute ere haurra da garrantzitsuena.

zuela uste dut, edo Gasteizera joan zen, behintzat. Itsasondoko eskolan irakaslea behar zen, euskalduna, eta nik irakasle ikasketak bukatu berri nituenek, lekua egin zidaten herrian. Urte bete egin nuen Itsasondoko eskolan, eta, gero, soldaduska egitera joan behar izan nuen, Ceutara (Espainia). Urtebete eta gero itzuli nintzen eskolara. Horrela, 39 urte egin ditut Itsasondoko maisu.

Ze oroitzapen dituzu haurra zineneko eskola txikikoak?

Eskola txikian, goiko eskolan ez bezala, neskek eta mutilak elkarrekin ibiltzen ginen. Gero, goiko eskolan mutilak alde batetik eta neskek bestetik. Orain Gaztetxea dagoen horretan, mutilak goiko solairuan ibiltzen ginen, eta neskek behean, bereiztuta. Ondoren eskola berriak egin zituzten, 71n edo, baina ni ez nintzen han ibili, beranduago hasi ziren hura erabiltzen, 10-11 urte nituenek, Ordiziara joan nintzenek.

Ondoren fraileetara.

Bai, hori da. Orduan batzuk akademiara, besteak fraileetara... Itsasondoko eskolan batzuk ere gelditzen ziren. Etxe bakoitzean erabakitzen zen zer egin. Ordiziako fraileak La Sallekoak ziren eta ni han aritu nintzen hiru urtez.

Ondoren Eibararrera eta gero unibertsitatea. Nolako garaiak izan ziren?

"Erasmus" ez genuen egin guk. "Universidad Laboral" hura Eibarren zegoen, eta guk aste gutzia

han egiten genuen. Igandean joaten ginen, eta ostiralean itzultzen ginen. Hango oroitzapenak onak dira, oso onak. 14-15 urterekin aste gutzia etxetik kanpo pasatzen nuen, eskolan ikasten direnak eta eskolan ikasten ez direnak ikasi nituen nik han. Gustura bizi izan nituen urte haiek, oroitzapen onak ditut. Han ikasle asko elkartzeko ginen, nafarrak eta urrutiagokoak ere han izaten ziren. Hiru hilabete oso egiten zituzten batzuk han, asteburuetan etxera itzuli gabe.

Eta soldaduska?

Gogoratzen dut oraindik Loiolara joan nintzenekoa. Ceuta. Ondo entzun ote nuen zalantza egin nuen, baina bai, Ceutara bidali ninduten. Han Loiolatik tren geltokira oinez nindoala a zer burutazio ibili nituen, baina Ceutan bukatu nuen. Beste puntan.

Eskolan ikasturte bat galdu nuen. Lehendabizikoa bukatu nuen, eta bigarren urtean soldadu. Hirugarren urtean zertxobait beranduago hasi nintzen, baina irailean bertan hasi nuen ikasturtea.

Garai hartan bazen gure adinek jendea irakurtzen eta idazten ez zekiena. Han piska bat lagundu genuen bagenekienok, eta baliagarria izan zen alde horretatik. Bakarren bat horretan lagundu banuen, pozik.

Etzera bisitaren bat?

Lehendabiziko aldiz bost hilabete igaro eta gero egin nuen bisita. Irailean-edo joan nintzen, eta San Jose ondoren etorri nintzen lehen aldiz.

Ordurako odol-emaille nintzen. Odol-emailleak behar zituzten eta hemen egiten nuen bezala han ere eman nuen odola. Odola emateagatik hiru asteko baimena eman ziguten, orduan jendea ez zen animatzen-eta. Han baimenak ematea asko kostatzen zitzairen, baina honekin eman zidaten.

Behin "Día de las Fuerzas Armadas" delakora joan ginen Bartzelonara, Espainiako Erregearen aurrean desfilatzerara. Orduan pentsatu genuen agian baimenen bat emango zigutela, baina bat ere ez. Odola emateagatik bai, hiru aste.

22 urterekin itzuliko zinen. Eskolara.

Bai, berriro ere maisu.

Ume asko?

Bai, beno. Urte guzti hauetan gorabeherak izan dira. Haur gehiago izan ditugun garaiak eta gutxiago izan ditugun garaiak. Hasi nintzeanean ez, baina gero izan ziren urte batzuk haur gutxirekin, 30-40 umeekin. Azken ikasturte honetan 69 haur izan ditugu, kopuru polita. Urte onak izan dira Itsasondan etxe berriak egin zituztela-eta, hemendik urte batzuetara zer gertatzen den ikusi beharko da.

Garai berean, eskola eta ikastola egon ziren zu maisu hasi zinenean Itsasondan. Zu eskolan hasi zinen zuzenean?

Bai, nazionaletan. Hor urte batzuetan bi eskola paralelo izan ziren. Haur batzuk ikastolara joaten ziren, eta besteak nazionaletara. Lehendabiziko urtea Itsasondan 1979an egin nuen nik, eta bi eskolen arteko "fusioa" edo bat egitea 81ean-edo egin zen, gutxi gorabehera.

Fusioak aldaketa ekarri zuen?

Bai, bai. Bi komunitate edo bi talde egotetik, bakarrera pasatu ginen. Batzuk alde batetik eta besteak bestetik ibiltzetik, guziok elkarrekin ibiltzera. Bazegoen horrelako bretxa bat fusioa egin arte, eta horrekin apurtu zen. Orain ezingo genuke imajinatu Itsasondan bi eskola egotea, herri txikia izanda. Itsasondan bezala inguruko herrietan ere gertatu zen. Gogoratzen dut hasiera horretan bilera asko egiten zirela, eta, gu bezala Zaldibia, Legorreta... zebiltzan, herri-eskola-



Txikitatik futbolerako afizioa.

rekin. Beranduago etorri zen eskola-txikien kontua.

Aurrerago ibili ginen herri-eskolen bidean jarraitu edo eskola-txikien bidea hartu ezin asmatu. Pixkanaka-pixkanaka herri-eskolen kontua ahuldu egin zen, eta eskola-txikien kontua indartu zen. Gure neurria ere hori zen eta eskola-txikien mugimenduan urteak daramatza Itsasondoko eskolak.

Herri-eskola eta eskola-txiki izatearen artean alderik ba al dago?

Ez, askorik ez. Hor gertatzen dena da hasieran gure erreferentziak Legorreta edo Zaldibia bezalako herriak zirela, gu baino ikasle gehiago zituztenak. Gure eskola gehiago gerturatzen da herri-txikietako eskoletara, eta hortik dator aldaketa.

Nola eraman duzu herrikoa izanda herriko maisu izatea?

Ondo, egia esan. Alaba ere eskolan ibili da eta ni izan naiz bere irakasle. Pentsatu izan dut alabarentzat ez zela erraza izango, baina horretaz etxean hitz egin dugu, eta ez dut uste gaizki sentitu izan denik, eta ni ere ez.

Kalean ez dut presiorik sentitu. Azken hamar urteetan Beasainen bizi izan naiz eta, agian, gehiago deskonektatzen da, baina irakasle

izan naizen urte gehienak herrian pasatu ditut eta haurrak ere hobeto ezagutzen dituzu. Ikusi egiten duzu haur bakoitza nondik nora dabilen, zer inguru daukan... ez dakit. Motibatzea errazagoa izaten da haurrak ondo ezagutzen badituzu.

Garai batean eskolatik kanpo ere gauza asko egiten genituen haurrekin. Uda garaian udalekuetara joaten ginen, adibidez.

Udalekuetako esperientzia polita izan zela entzun izan dugu herrian.

Bai, bai, hori han izan zirenei galdetu behar, baina hala ematen du. Maite hasieratik bukaeraraino egon zen udalekuetara joaten, nik ez dakit zenbat urte egingo nituen, 20 urterekin hasi eta ezkondu arte. Tartean urteren bat edo beste kale egingo nuen, baina 7-8 urte egingo nituen.

Adin horretan haurrekin errazago moldatzen zara, oso gustura ibiltzen ginen, ia-ia haurrak bezala. Egia da uda zela, gure opor-garaia zela, baina gustura joaten ginen. Hiru astez joaten ginen udalekuetan eta ez genuen kobratzen, baina hortan pentsatu ere ez genuen egiten, aurretik egiten zen zerbait zen eta gustura joaten ginen. Gaur egun, horrelako zerbait oporretan planteatu ere ez da egiten.

Ikasturte amaierako bidaietara ere joan nintzen. Eskolan ikasleak 14 urte arte egoten ziren garaian bidaia egiten zen kurtso amaieran, eta joatea tokatu zitzaidan. Aste-bete.

Lehendabiziko bi urteetan Benidormera joan ginen eta ondorengo urteetan Palma de Mallorcara. Ume askok hegazkina lehenengoz hartuko zuten. Horiek bizipenak dira bai niretzat eta baita ikasleentzat ere.

Bizipen gogorrik?

Batzuk norberak gordetzeko modukoak izaten dira. Ikasturte batzuk



Beti oker futbol-zelaien koadrilen arteko txapelketan (1982 inguruan)



Azken indarrak botatzen (Altzagarateko igoera 1985 inguruan)



Ibarre, txistulariak eta Tiro pitxona: festetan ezinbestekoak (1979koa edo 1980koa)



Metara iristen eta foto-finishik ez. (Festetako krosa 1985 inguruan)

besteak baino zailagoak izan dira, baina orokorrean ondo. Ikasturtean zehar ere badira garai lanpetuagoak, bilerak, informeak... direla-eta.

Zure bizitza profesionala Itsasondon eman duzu osorik. Penarik?

Ez, gustura ibili naiz. Egia da zenbaitek ezingo luketela 39 urtez leku berdinean egon, baina ni gustura ibili naiz. Gurean ere asko ikasten da, 39 urtetan gauzak asko aldatu dira-eta. Irakaskuntza sistemak eguneratzea eskatzen dizu, gauza berriak lantzea.

Asko aldatu al da irakaskuntza?

Bai, aldatu da. Gaur egun umeei begira lan egiten dugu. Garai batean garrantzia gehiago ematen zitzaien edukiei, erakutsi behar zena erakutsi behar zen. Egun edukiek garrantzia badute ere haurra da garrantzitsuena.

Erretiratu zara. Orain zer?

Denek hori galdetzen duzue. Ez daukat amets berezirik, etorriko dira gauzak. Paseatzea beti gustatu izan zait, eta mendialdetik ibiltzeko denbora gehiago izango dut orain. Denek disfrutatzen esaten didate, eta nik esaten diet orain oporretan nagoela eta irailean horretan jarraituko dudala. Bizitzan datorrenari helduko diogu.

Zer duzu gustuko Itsasondotik? Eta zer aldatuko zenuke?

Nire ume garaiko Itsasondo dut nik gustuko. Batzuetan idealizatu egiten ditugu zenbait kontu, baina Itsasondok zuen saltsa eta bizia daukat gogoan. Beti kalean gora eta behera. Oraingo haurrak Txindokira iritsiko ziren, eta Murumendira ere bai, baina Saro, Itsesa edota Iraola non dauden ez dute jakingo akaso. Ahalegindu izan naiz horrelako kontuak haurrei jakinarazten.

Eskola berria aurrera doala ematen du...

Bai, hori dirudi. Egia esan guk eskolan ez dugu informazio gehiegirik.

Luze joan dira urteak?

Urteak azkar pasatzen dira. Tokiz konturatu gabe aldatzen zara. Momentu bat izaten da non umeen gurasoak zu baino zaharragok diren, eta, konturatu gabe, denak gazteagoak. Eta azkar ematen da aldaketa hau.

Ikasturtearekin alderatzen dut bizitza. Irailean hasten zara, eta, bueno, hasi berri. Eguberrietara heltzen zara, eta, bueno, oraindik ia hasi berri. Otsaila iritsi, eta, ia ikasturte erdia pasatu dela. Gero aldapa behera izaten da. Eta bizitza bera ere nik uste dut horrela izaten dela. ■



Deskargak ilegalak edo legalak?

Euskaltelen Internet zerbitzua erabiltzen dutenek, "pirateria" salaketa jaso dute. Duela hilabete batzuk hasi zen auzi hau.



Berez arazo hau ez da berria, 2017an ere gertatu zen antzeko zerbait. Dena den, iskanbila handiena aurtengoa izan da. Maiatzean, gutxi gorabehera, Euskalteko Internet zerbitzua kontratatuta zeukaten bezero batzuk eskutitz bat jaso zuten. Hain zuzen, salaketa bat jaso zuten esanez pelikula edo serie bat deskargatzea-gatik isun bat zeukatela. Horrekin batera jakinarazi zieten bost egunean ordainketa ez bazen egiten, epaitegira joateko jakinarazpena jasoko zutela.

Askok pentsatuko zuten: "Nola posible da hau? Nola, iris daiteke isun bat etxera *halako pelikula* edo *halako seriea* deskargatu duzula eta, baimenik gabe deskargatzea-gatik, dirua zor duzula esanez?"

2017an Euskaltelek epaiketa bat galdu zuen ekoiztetxe bateko abokatu taldearen aurka. Ekoizlearen abokatuek zioten Euskalteleko bezeroek beraien pelikulak konpartitu egiten zituztela, inolako baimenik gabe. Horren ondorioz, epaileak Euskaltel enpresa behartu zuen film hori deskargatu zuten bezeroen IP helbideak pelikula ekoizleari helaraztera.

IP-a telefono zenbaki baten antzekoa da. Routerrak Internet erabiltzen duen gailu bakoitzari IP bat ematen dio, hau da, telefono zenbaki moduko bat Internetera konektatu ahal izateko.

Itxura denez, epaiketa horren ondorioz, ekoizpen etxea gutunak bidaltzen hasi da. Baina nondik lortu

ditu Interneteko erabiltzaileen izen-abizenak eta helbidea? IP-arekin ezin dira atera datu horiek, eta Euskaltelen esanetan, IP zenbakiak soilik eman zituzten.

Behin egoera horretara iritsita, ikusten da hutsune legal asko daukela kasu honetan. Beraz, ezin da zehaztu gauza handirik. Baina, nire iritziz, gauza arraroak gertatu dira; eta, kasu honetan, pelikula ekoizpen enpresak ez du garbi jokatu.

Epaileak Euskaltel behartu egin zuen IP helbideak abokatuei bidaltzera. Dena den, IP horiekin soilik ezin dira izen-abizenak eta halako datuak atera. Aterako balituzkete, datuen babeserako araudia hautes-ten egongo litzateke pelikula ekoizle enpresa. Eta hori ilegal da.

Praktika hori ikusi ostean, badi-rudi Euskaltelek film ekoizpen enpresa salatu duela. Gainera, hori ez da Euskal Herrian bakarrik gertatu; Espainiako estatu mailan ere izan dira halako kasuak.

Bestalde, gogoratu Euskaltelek WiFi Kalean zerbitzua ematen duela. Beraz, posible da zure etxeko inork pelikula edota serie horiek deskargatu ez izana. Alegia, kanpoko pertsona batek egin dezake, konexioarekin.

Eta beste galdera honakoa da: Zergatik ez da salatu zuzenen pelikula eta serie horiek zintzik zeuden webgunea? Pirateria saihesteko webgune horiek desagerraraztea litzateke egokiena, eta ez bezeroen jokaera salatzea. Izan ere, Interneten herritar ugari erabiltzen du In-

ternet, baina askotan ez dute guztiz garbi izaten zer egin dezaketen eta zer ez.

Halere, eta beti esango dut, pelikula bat edo serie bat deskargatu edo konpartitzea ez da ilegala, behinik behin, irabazi asmorik ez badago.

Zein da nire iritzia? Badi-rudi abokatu langela batzuk ikusi dutela gaur egungo "anti-pirateria" lege-etan lege hutsuneak daudela. Beraz, beraientzat modu erraz bat da dirua irabazteko, ikusita pelikula eta serie ekoizpen enpresak irrikatan daudela "deskargak ilegalak" kentzeko. Dena den, lehen esan dugun bezala, IP-a emanda ezinezkoa da bezeroen datu pertsonalak jakitea. Non daude datuen babeserako oinarriak kasu honetan? Eta bukatzeko, nola jakin dute pelikula eta serie horiek sarean konpartitzen ari direla? Azkeneko galdera honetarako teoria bat dago: Amu bat erabiltzea; hau da, pelikula ekoizleak berak konpartitzea, eta ikustea zeinek deskargatzen duen. Hala bada, hori guztiz ilegal da, eta pelikula hori deskargatu duen jende guztia litzateke errugabea.

Zu horietako kaltetu bat bazara, Interneten kaltetuen plataforma asko dauzkazu informazio gehiago jasotzeko. Gainera, abokatu asko ari dira, beraien blog-en bitartez, kasu honetako kaltetuei laguntzen. Hala nola, David Bravo, estatu mailan, Internet eta teknologietan espezializatua eta Internet aske baten defendatzailea. ■

Iban Serrano Rubio

Itsasondo aspalditik ezagutzen duen arren, donostiarra dugu Iban. Eta kapitaleko giroa eta mugimendua faltan baditu ere, gustura bizi da herri txiki honetan, bere familiarekin batera. Jaso duen oparirik bereziena semearen jaiotza izan zela kontatu digu, eta onartu digu umeen barre-karkarekin batera berak ere barre egiten duela.



Noiz etorri zinen Itsasondora?

2019ko uztailean, orain dela gutxi.

Non bizi zinen lehen?

Donostian, beti Donostian bizi izan naiz.

Zergatik erabaki zenuen Itsasondora etortzea?

Etxea erostea erabaki genuen, eta aukerarik onena Itsasondo iruditu zitzaigun.

Zer gogoratzen duzu etorri zinen lehen egunaz?

Etiket ditugun bistak, agian; baina batez ere etxe-aldaketen nekea daukat gogoan.

Zer lanbide duzu?

Produkzioko teknikaria naiz.

Zer duzu faltan Donostiatik?

Giroa, jendarteko etengabeko mugimendua.

Zer ez zaizu gustatzen Itsasondotik?

Zerbitzu gutxi ditu.

Eta zer duzu gustuko?

Herritarren arteko harremana, konfiantza.

Zein zaletasun dituzu?

Kirola praktikatzea, familiarekin egotea.

Janari bat?

Paella.

Edari bat?

Garagardoa.

Itsasondo edo Goierriko txoko bat:

Larraitz, esaterako.

Amets bat?

Bizitza ezustekorik gabe bizitzea.

Jaso duzun oparirik bereziena?

Markelen jaiotza.

Zeri diozu beldurra?

Lanik gabe gelditzeari.

Zerk sortzen dizu irribarrea?

Umeen barre naturalak.

Itsasondon biziko ez bazina?

Donostian biziko nintzateke. ■

Itsasondoko lumadun bizilagunak

2019ko negu eta udaberrian zehar, Itsasondoko eguneko hegaztien ikerketa bat egin dute Naturtzaindia Elkarteko biologoek. Lan horretan, Itsasondoko habitat nagusietan agertzen diren hegaztien zerrenda egin da, eta aniztasun biologikoaren antolaketa ere aztertu da.



Ikertu diren habitat nagusiak landazabal atlantiarrak, baso-misto autoktonoak eta egur ekoizpenerako baso landaketak izan dira. Hegaztien izaera migratzailea kontuan izanik, ikusi da hegaztien komunitatean aldaketa arinak somatu dituztela negutik udaberrira. Neguan agertu diren hegazti batzuk Europa erdialdetik etorritakoak dira. Horieta ordezkaritza batzuk dira negu txontak, tarinak eta negu txirtak. Udaberrian, aldiz, Afrikatik etorri diren espezie transaharar bidaiari nekaezinak izan dira Itsasondon. Lepitzulia, sasi txinboa, miru beltza, erreka-txindorra, sasi-txori arrunta, euli-txori grisa eta txio iberiarra bezalako espezieak gerturatu dira ugaltzeko helburuarekin; horren ezagunak diren kuku, enara arrunt eta sorbeltz arruntekin batera. Bestalde, urte guztian zehar bizi diren hegaztien ordezkaritza batzuk tuntu arrunta, gailupa, garrapoa, erregetxo bekainzuria, buztanluzea edota ur zozoa dira, besteak beste.

Okilak jaun eta jabe dira Itsasondoko zuhaiztietan. Okil handia, okil berdea eta okil txikia dira talde funtzional honetako ordezkaritza arruntenak, azken horiek gutxi badira ere. Euskal Herriko Espezie Mehatxatuen Zerrendan dagoen okil beltza ere aurkitu da Itsasondon. Guztira, Iberiar Penintsulan topa daitezkeen zazpi okil espezieetatik bost bizi dira bertan.

Guztira 64 hegazti espezie aurkitu dira bertan, basoetan, ibaietan eta landazabalean bizitzera moldatuta dauden espezieak, batik bat. Horrek ez du esan nahi Itsasondoko lurretan bazkatzen edo babesleku bila hegazti espezie gehiago ez denik geratu. Udalerrri hau Europako migrazio ibilbide garrantzitsuenetako baten barnean dago, eta migrazio garaian eta gazteen dispersio garaian pitxartxar nabar, paparurdirin, benarritz nabar, arrano sugetzale, saizuri edota zapelatz liztorjalea bezalako espezieak ikusteko aukerak daude.

Aniztasunari dagokionez, ikusi da Afrikatik datozen migratzaileek Itsasondoko landazabal atlantiarrak aukeratu dituztela, oro har, ugalketarako. Espezie aberastasun handiena habitat mota honetan topatu da, gainera. Aldiz, egurraren ekoizpenera bideraturiko baso landaketetan topatu dira kopuru pobreenak, aniztasun txikienarekin. Bestalde, nabarmendu behar da baso-misto autoktono eta landazabal atlantiarren garrantzia, hegaztien funtzionamendu ekologiko egokiari begira. Izan ere, habitat hauetan topatu dira funtzionaltasun sare konplexuenak, klima aldaketak eragin ditzakeen efektuak leuntzeko gutiz beharrezkoak direnak.

Ondorio kezagarriak ere utzi ditu Itsasondon egindako ikerketa honek. Izan ere, duela gutxi arte arruntak ziren hegazti espezie batzuk desagertu egin dira udalerrri honetan. Antzandobi arrunta eta hesi berdantzen kasuak dira horietako bi adibide, ikerketa honetan ale bat ere ez baita topatu. Murumendi inguruan garatzen diren arroketako habitatean harkaitz txoririk ere ez da antzeman.

Orokorrean, azken urteetan lanzadabaleko eta harkaitzarte inguruetak txorien desagertze joera bat dagoela ohartarazi dute Naturtzaindiatik. Hori dela eta, espezie hauek berreskuratu eta ekosisteman duten funtzioez gozatu ahal izateko, habitat hobekuntzak egitea lehentasunezko zatik jotzen dute. Horrela, Itsasondoko ingurumena ingurumen egonkor bat bihurtuko da, klima aldaketaren efektuei aurre egiteko gaitasuna duena. Horretarako, landazabal zein baso-mistoetan ornodunentzat babeslekuen eskaintza handitzea gomendatzen da, sastrakadiak sustatu, basoetako heldutasuna areagotuz, bioaniztasunaren kontserbazioarekin bateragarriak diren basogintza ereduarekin apustua eginez eta Murumendi inguruan mendizaletasun jasangarria bultzatuz. ■



Itsasondoko baso autoktonoa kontserbatzea eta bere garrantzia nabarmentzea

Udaletxe gutxi dira bertako basoa berreskuratzeko asmoz lursailetan inbertitzen dutenak, haren iraupena bermatu; eta, aldi berean, auzotarrek basoaz gozatzea helburu jarrita.

Egoera naturalean, landareen %90 mikorrizatuta daude; alegia, onddoekin batera bizitzeak lagundu egiten die bizitza luzatzen. Gizakiak bi horien arteko sinbiosia behar du, eta bere osasuna basoarekin duen harremanen menpe dago.

Erlazio horien berri izateko helburuarekin Itsasondoko Erreserba mikologikoa martxan jartzea erabaki dugu, baita ingurumen-hezkuntzari loturiko hainbat ekintza ere, gure basoarekin konektatzeko gogoia piztu nahian.

Erreserba mikologikoa Zer jakin nahi dugu?

- Itsasondoko pagadiaren osasun-egoera, egungo klima-aldaketaren testuinguruan.
- Pagadiari lotutako bioaniztasun mikologikoa eta mehatxupearan egon litezkeen onddo-espezieak.
- Jangarriak diren onddo-espezieen ekoizpena eta ekologia ezagutzea.

Pagadi helduen mozketak egin dira jada, *Boletus gr. edulis* onddoaren ekoizpena ikusi ahal izateko; eta zuhaitz mikorrizatu-inokulatuekin ugalketa bat egin da. Hau da, onddoak txertatu zaizkien zuhaitzekin.

Ingurumen hezkuntza

Eta nik... nola har dezaket parte?

Ekainean egindako lehen ateraldi eta ziza dastaketaren ostean, aurreko irailaren 19an Herri Eskolarekin mikorritzatzeko elkartu ginen; eta Kaxintane tabernaren laguntzarekin, lorategi mikologikoaren sorkuntzari ekin genion. Orain *Pleurotus ostreatus* (ostra ziza, jangarria dena) ziza txertatuta duten hainbat enbor aurki daitezke bertan.

Horrela baso zatitxo bat herrira hurbiltzea lortu, eta hemendik aurrera horien zaintza txikienean eskuetan utzi da, gai eder honen inguruko lanketa eskolan egin dezaten.

Horretaz gain, urriari Itsasondoko lehen argazki lehiaketa jarri da martxan. Horretarako 19-20 asteburuan "Urkiko gau magikoa" izeneko ateraldiarekin batera argazkilaritza tailer bat egingo da, beste hainbat jardueraren artean. Azkenik, azaroan bilketa bat egin eta lortutako informazio guztia ikusgai jarriko da, baita argazki sarituak ere. ■

Herriko jaietako kronika



Festetako ekintza guztiak izan dute arrakasta. Haur eta jubilatuen ekintza oso polita izaten da; jolasak zein sukaldaritza saioa ondo atera izan direnez, horiek mantentzea ondo ikusi da. Zinta karrera ere oso ohikoa da, baina hori mantentzeaz gain, baloratu da ondo legokeela beste jolas kooperatibo batzuekin osatzea.

Ostirala izaten da festetako egun indartsuena, eta hori mantentzea ondo dago, baina asteburuan hainbat ekintza gehitzea komeni dela ikusi da. Horretarako, haur ikuskizuna egunez aldatu daiteke, edo igandean pelota partidu edo herri kirol ikuskizuna jarri.

Herri afaria eta Huntzaren kontzertuek balorazio oso ona jaso dute. Gainera, giro ezinhobea jarri zuten festetan egon ziren bi DJ-ek ere.

Andoni Ollokiegik ere lagundu zuen bazkalostean.

Gaitasuna badagoela argi gelditu zen talent showean, eta aurtengo mozzorroek ere izan dute bere xarma.

Mantentzeko beste ekintzetako bat bokata-janarena da, sortzen den giroarengatik eta herritarren parte-hartzeagatik.

Puzgarriek beti osatzen dute haurren programazioa, eta aurten ekintza hori frontoian egitea ondo ikusi da (eguraldiagatik izan bazen ere).

Paella janean ere giro eta jateko ona izan zela baloratu da. Hori bai, galdetegian emandako erantzunen arabera, paella lehiaketa edo kuadrilla artekoa berreskuratzea egokia ikusten da.

Sagardo dastaketan jada festen ondorengo neke guztiak agerian zeuden. Izan ere, ijitoa ere joan zen hurrengo urtera arte deskatsatzera.

Galdetegiko balorazioan zein batzordekoan ondorioztatu da lanerako boluntarioen gaia hobeto antolatu beharko litzatekeela: lanak ondo zerrendatu, jendearen parte-hatzea eskatu... Horrela guztion artean jai oparoak sortuko ditugu. Bejondeizuela! ■

Konpostagunea eredu



Txinako Gobernuak harremanetan jarri zen Espainiako estatu mailan hondakin organikoen kudeaketan lan egiten duen Fertile Auro irabazi asmorik gabeko elkartearekin. Urriaren Bilbon ospatu behar zen ISWA2019 jardunaldira etortzekoak ziren, eta aitzakia horretan, Espainiako estatuko hainbat ekimen ezagutu nahi zituzten, zabor bilketa eta kudeaketa deszentralizatuen ingurukoak. Honela izendatu zuten bira: "Tratamendu biologikoen bidez Espainiako lparaldeko deszentralizatutako tokiko hondakin kudeaketa ereduen inguruko azterketa". (*Study tour about decentralized and local bio-waste management models through biological treatments in north of Spain*).

Zabor kudeaketaren munduarekin lotutako arlo politiko, tekniko eta akademikoko hainbat eragilek parte hartu zuten (guztira, 16 lagunek) bira tekniko honetan.

Irailaren amaieran, Madrilgo eta Galiziako ekimenak bisitatu zituzten, eta urriaren 3an eta 4an Euskal Herrian izan ziren, Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako Foru Komunitateko ekimenak bisitatzen. Ondoren, Kataluniara joan ziren, handik bueltan berriro Bilbora itzultzeko, kongresura.

Euskal Autonomia Erkidegoan, Debagoienako, Goierriko Sasietako (Itsasondo) eta Tolosaldea Departamentuko Zuhatzako aterpetxearen alboko hainbat udalerririk bisitatu nahi izan dituzte. Izan ere, konposta komunitarioaren bidez bio hondakin kudeaketa sistema oso interesgarria iruditzen zaie.

Urriaren 3an Itsasondon izan ziren, gure konposta gune sistema ezagutzeko. Interes handia erakutsi zuten. ■

San Juan sua 2019

Uda iristearekin batera, Itsasondoko sorginek dantzan jarri gintuen, sua piztu zen ekainaren 23ko ilunabarrean. Arbelaitz elkarteko kideek prestatutako afari-meriendaren ondoren, 50 bat lagunek plazako sua inguratu, eta dantzari ekin genion oihu eta irrintzi, barre nahiz algara artean. Hurrengo urtean ere, egun horretan, suaren berotasunean elkartuko gara, animatu! ■



Herriko jaiak

Eguraldia lagun izan zen nagusiki herriko jaietan, eta giro paregabea izan zen herrian, batik bat, plazan. Ilijotak ongietorria eman zien festeei, guraso elkarteko pregoilariekin batera. Aurtengo programa ekimenez beteta zegoen <http://www.itsasondo.net/argazki-lehiaketa/oinarriak.pdf>, eta guztietan parte hartze handia izan da. Adin guztietako herritarrek parte hartu zuten antolaturiko ekintzetan. Aipagarrienetakoa Huntzaren kontzertua izan genuen, jende ugari gerturatu zen gure herriko plazara, eta giro ezin hobean dantzan jarri gintuzten. ■



Musika emanaldia

Itsasondoko musika eskolako ikasleen kontzertua izan zen ekainaren 20an, udaletxean.

Goierriko musika eskola ibiltzen diren haurrek gogotsu jo zituzten 11 abesti, ikusleen gozamenerako.

Xirula, tronpeta, pianoa, kitarra... instrumentu ugari jo zituzten, eta abestiak ere hainbat doinu eta estilokoak izan ziren. Aspaldiko Aitorren hizkuntza zaharra kanta herrikoitik hasi, eta gaur egungo abesti modernogoetara; Berri Txarrak Katedral bat ere jo zuten, adibidez. Eskerrik asko, eta segi gogotsu! ■



Bakean dagoena bakean utzi, binakako bakarrizketak

Pintxopoteari hasiera emateko, irailaren 27an, Bakean dagoena bakean utzi elkarrizketa izan dugu plazan. Mirari Martiarena eta Idoia Torregaraik generoa, euskara eta umorea uztartuz binakako bakarrizketa barregarriak eskaini zizkiguten. Jende ugari bildu zen, eta kontatzen zituzten zenbait pasarterekin identifikatu ginen, emakumeok bereziki. Oso saio dibertigarria izan zen; gainera, hausnarketako bide ematen zuena. ■



Pintxopotea

Aurtengoan ere pintxopoteari ekin diogu herrian. Irailaren 27an hasita, hurrengo hiru asteetan ere, ostiralean, 19:00etatik 21:00etara herrian zehar pintxopotea egiteko aukera izango da. Nautiko, Kaxintane, Arbelaitz elkarte eta Bizi nahi elkartearen antolatuta giro paregabea izango dugu herrian. Plazan ere txosna ezarri da. Animatu eta parte hartu! ■



2019ko Urkiko iraileko jaiak

Irailaren 14an, Gurutze Deunaren egunean, eman zitzaizen jaiak hasiera. Eguraldi paregabearekin, egunik jendetsuena izan genuen. Izan ere, hamaiketakoan zein afarian elkarteko jangela bete egin zen.

Egun guztian zehar, Jon Ostolaza eta Lutxurdio trikitilariekin, erromeria giro paregabea izan genuen, jende asko eta umore oso onean elkartu zen bertan.

Irailaren 15ean, igandean, meza, hamaiketakoa eta bazkaria izan ziren lehenik, eta jende asko bildu zen.

Arratsaldean Herri Kirolak izan ziren ikusgai. Arrospe eta Larrañaga Txikia IV eta Ugartebururen aurka aritu ziren aizkoran, eta lehen bikotea nagusitu zen, lehia estu baten ondoren. Tartean Goenatxo III.-a, harrijasotzaileak erakustaldiak egin zituen 175 kiloko zilindro zaharrarekin, 11 arroako harri kubikoarekin eta 100 kiloko bolarekin.



Iluntzean erromeria egin zen, egun guztian zehar trikitia jotzen jardun zuten Laja eta Lutxurdio trikitilariekin. Haien jarritako giroarekin, plaza dantzariak bete-bete eginda egon zen.

Egunari bukaera emateko, Urkiko jaien alde jarritako saskiaren zozketa egin zen.

Eguraldia lagun izan dugunez, oso jai alaiak eta jendetsuak ospatu ditugu. Ea hurrengo urteetarako ere eusten diogun euskal erromeri mota honi, jendearen parte-hartzea lagun dugula. ■



(errezeta)

Txangurroz beteriko legatz bete bilkaria, itsaski kremarekin

OSAGIAIAK:

- 200 gr legatz xerra
- 60 gr txangurro izpituta
- 20 gr tipulina
- 10 ml itsaski krema
- 20 gr piper gorri
- 20 gr piper berde
- 20 gr tipula
- Batxuri bat
- Tomate frigitua
- Ardo txuri pixka bat
- Coñak kopatxo bat
- 5 ganba edo otarraixka
- Arrain salda
- Olio eta gatza

Tipula, piperrak eta baratxuria txikitu, eta txangurro izpitua gehituko diogu. Zartaginera olio pixka bat bota, eta guztia frijituko dugu.

Ardo txuri pixka bat gehituko diogu, tomate frijituaz gain, eta koñak kopatxoa botako diogu.

Legatz puska hartu, findu, gatza bota eta aurretik eginko nahasketa jarri gainean jarri. Guztia bilduko dugu, bilkari bat sortuz.

Labean sartuko dugu 220 gradutan, 14 minutuz.

Bitartean itsaski krema egin dezakegu: Olio pixka bat eltze batean jarri, eta bertan frijitu, tipula txikitua, bost ganba edo otarraixka gordinekin. Koñakarekin flanbeatu dugu, eta arrain salda edo tomate frijitu pixka bat botako diogu. Murrizten denean, iragazi egingo dugu.

Salda hau plater azpian jarriko dugu, eta bilkaria gainean, tipulin frijitu batzuekin apainduta.

ON EGIN! ■



Asier Arbilla
Arbeletxe jatetxea. LA SEU D'URGELL
www.arbeletxe.com
973 361 634

Euskararen atala

Euskara txukuntzen

Hona hemen gure egunerokoan euskara erabiltzean egiten ditugun hanka-sartzeen zenbait adibide. Saia gaitzean zuzentzen!

Euskara "makarronikoa"	Euskara txukuna
Hasten naiz irakurtzen?	Hasiko naiz irakurtzen?
Hau non uzten dut?	Hau non utziko dut?
Ekartzen dizut bihar.	Bihar ekarriko dizut.

Euskaraz bai, umorea ere bai

Amonak bilobari:

– Zure adinerako ni hasita nengoen lanean.

Eta bilobak amonari:

– Eta zure adinarekin, nik lanean jarraitu beharko dut!

Euskararen telefonoa

Zer da?

Euskararen telefonoa Behatokiaren dohako zerbitzua da. Hizkuntza-eskubideen urraketeki konponbidea emateko tresna zuzen eta eraginkorra izan nahi du.

Zerbitzu honetara jo dezakezu:

Kexa egiteko: Euskara erabiltzeko duzun eskubidea ez badizute errespetatu edo euskara erabiltzeagaitik kaltetua izan bazara.

Zoriontzeko: Euskaldunon hizkuntza-eskubideak bereziki ongi zaintzen dituzten erakundeen jokabide eredugarria txalotu nahi baduzu.

Kontsulta egiteko: Zure hizkuntza eskubideen inguruko galderaren bat baduzu, argibideak, informazioa, aholkularitza juridikoa... behar baduzu.

Zerbitzu hau erabili ahal izateko,

www.euskararentelefonoa.com webgunean sartu eta bertan erregistratu beharko duzu.



Urkiko aterpetxea erabilgarri

Itsasondoko Udalak, Urkiko Elkar-
tearen laguntzarekin, auzo hone-
tako plazan dagoen aterpea talde
desberdinak erabiltzeko moduan
izateko prestatu du. Eskola-erai-
kuntzak sukaldea, jangela-egongela etan komuna ditu eta aldameneko
frontoi itxian gaua pasatzeko 20 hamaka jartzeko modua egin da. Ha-
maka hauek gauean jarri eta goizean erretiratzeko moduan jartzen dira.

Erabilera urte osoan egin daiteke eta talde bakoitzak 15 egun arteko
egonaldirako baimena eskatu ahal izango du.

Aterpearen erabilerarako, Itsasondoko herritarrek lehentasuna izango
dute eta, hauen artean, Urkiko Elkarteko kideak. Lehentasun hori gau-
zatzeko, izen-ematea, gutxienez eskatuko den lehen eguna baino hila-
bete lehenago egin beharko da eta 30 eguneko aurrerapen horrekin
herritarren eskaerarik ez balego, edonoren baimen eskaerari erantzuna
eskaera dataren arabera emango da.

* Baldintzak:

- Gau bakoitzeko prezioa: 25 €.
- Fidantza: 100 €.
- Gehienez, 20 lagunentzako lekua dago. Gehiago behar izanez gero,
aldamenean akanpatu daiteke.

Egonaldiaren ordainketa eta fidantza jartzea giltza jasotzean egingo da.
Fidantza honekin ordainduko dira sor litezkeen kalteak, garbitasun gas-
tuak eta erabilitako egurra. Giltzarekin batera behar diren xehetasunak
emango dira. Talde bakoitzak sortzen duen zaborra (beira, ontziak, orga-
nikoa...) berarekin jaitsi beharko du.



URRIA

- 8** Helduen gimnasia hasiera, 16:00 jubilatuetan.
19 eta 20 Gau magikoa (Urkín).
20 Nafarroa Oinez (Tutera).
20 Eskola txikien jaia (Zerain).
22 eta 29: Tipi-tapa.
30 Memoria tailerra, 18:00etan jubilatuetan.
31 Bingoa, 17:00etan jubilatuko elkarteetan.
31 Gau beltza.

AZAROA

- 4** Lurralde batzordea.
6 Herri bizitza batzordea.
5, 12, 19 eta 26 Tipi-tapa.
7 Ongizate batzordea.
9 Gaztain jana.
22 Kantu afaria.
25 Emakumeen kontrako indarkeriaren eguna, konzentrazioa.
27 Memori tailerra, 18:00etan jubilatuetan.
28 Bingoa, 17:00etan jubilatuko elkarteetan.
30 Talo festa.

ABENDUA

- 24** Olentzero.
31 San Silbestre.

Telefono interesgarriak

Udaletxea	943 881170
• Gizarte Langilea	
• Udal Arkitektoa	
• Epaitegia	

Haurreskola	943 164831
Herri Eskola	943 887704
Arbel-Aitz Elkartea	943 881339
Lurdes Janari Denda	943 885236
Arrastoa Botika	943 882148
Medikuarenean Txanda Hartzeko	943 007635
Kaxintane Taberna	606 756551
Nautiko Taberna / Izaskun Hotela	943 880012
Izaskun Ilepaindegia	943 160285

Sasieta	943 161555
Traste Zaharrak	943 161590
Taxi (Ordizia)	943 881486

itsasondo2.0

Herriko Aldizkaria ((43. zk)) Urria 2019

Ale honetan parte hartu dutenak:

Ainhoa Barandiaran
Aitor Montes
Asier Arbilla
Asier Bazaga
Belen Mendizabal
Bizi Nahi jubilatuko elkarteak
Edurne Gerendiain
Eskolako irakasleak
Haurreskolako hezitzaileak
Idoia Jaka
Joseba Sanchez
Jose Luis Aranburu
Maddi Alberdi
Maider Saenz de Navarrete
Maite Lasa
Mikel Mendizabal
Nerea Manzisidor
Unai Aldasoro

itsasondo 2.0-k ez du bere gain
hartzten aldizkarian adierazitako esanen
eta iritzien erantzukizunik.

Herritik kanpo bizi baldin bazara, eta, korreoz
edo e-mailez, aldizkaria zure etxean jaso nahi
baduzu, jarri gurekin harremanetan:

943 88 11 70

itsasondo2.0@itsasondo.eus

Lege gordailua: ISSN:
SS-297-2010 2171-5572

**GOGORARAZTEN DIZUEGU
HURRENGO ALEA
URTARRILEAN IZANGO
DUZUTELA ETXEAN**

